

Euskadiko gazteen %18,6 emantzipatuta daude egoitzari dagokionez

Neskak mutilak baino lehenago emantzipatzen dira; eta etxebizitza eskuratzeko erregimenik ohikoena Euskadin jabetza da



Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 18,6 emantzipaturik daude. Emantzipatutako nesken ehunekoa (% 21,3) altuagoa da egoera berean dauden mutilena baino (% 16). Gurasoenetik joateko batez besteko adina 29 urte da. Hain zuzen ere, neskak gazteago direla (28 urterekin) emantzipatzen dira mutilak baino (30 urterekin).

Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoa nabarmentzen da, bertako gazteen emantzipazio indizea hiruetan handiena baita (% 21,1); gero Bizkaikoa dator (% 16,7); eta, azkenik, Arabakoa (% 19,9). Euskadi osoan gertatzen den bezala, hiru lurralde historikoetako bakoitzean emantzipatutakoen artean, nesken proportzioa handiagoa da mutilena baino. Era berean, zenbat eta nagusiago, hainbat eta biztanle gehiago dago emantzipaturik.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren emantzipazio indizea, sexuaren eta adin-taldean arabera. Portzentajeak. 2001				
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	18,6	19,9	16,7	21,1
Gizonezkoak	16,0	17,8	14,1	18,4
Emakumezkoak	21,3	22,0	19,4	24,0
15-19	4,2	3,8	3,3	6,1
20-24	11,3	12,3	10,3	12,5
25-29	33,6	36,7	30,5	37,2

Iturria: 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, Eustat eta INE

Gurasoen etxetik kanpo bizi diren biztanle gazteetatik, % 62,2 ezkondu gabe daude eta % 36,3 ezkondua.

Ezkongabe egotea ohikoagoa da gizonezko emantzipatuen artean (% 71,4) emakume emantzipatuen artean baino (% 54,9).



Iturria: 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, Eustat eta INE

Emantzipatuta dauden hamar gaztetik 7 lanean ari dira (% 68,9). Gazte emantzipatuen % 11,3 bakarrik daude langabezia; eta % 9,8 ikasleak dira.

Sexuen arabera azterketak aditzera ematen duenez, langabezia ohikoagoa da nesken artean mutilen artean baino.

Lurralde historikoen banaketari bagagozkie, gazte emantzipatuen artean lanean dabiltzanak nagusi dira: % 72,8 Araban, % 71,3 Gipuzkoan eta % 66 Bizkaian.

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria emantzipatua, jarduerarikiko harremanaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera. Portzentajeak. 2001

	Ikasleak	Okupatuak	Langabeak	Pentsiodunak	Etxeko lanak	Beste egoeraren bat
Guztira	9,8	68,9	11,3	0,4	6,8	2,7
Gizonezkoak	9,4	78,6	8,6	0,4	0,4	2,7
Emakumezkoak	10,2	61,3	13,5	0,3	12,0	2,7
15-19	64,0	20,2	9,7	0,5	3,0	2,6
20-24	18,7	57,3	14,2	0,4	6,0	3,4
25-29	3,1	76,1	10,6	0,4	7,4	2,5

Iturria: 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, Eustat eta INE

Gazteek, gurasoenetik irteerarako, etxebizitza erosi egin ohi dute (% 75,3); % 17,7k bakarrik hartzen dute etxebizitza bat alokairuan. Halaber, gurasoen etxetik irteeraz gero, bikotekidearekin bizitzeko izaten da (familia bakarreko eta kanpoko jenderik gabeko etxea osatzeko, alegia). Aukera horren ondoren, baina tarte nabarmenarekin, bakarrik bizitzera doazenak daude (% 16). Datuak sexuen arabera aztertuz, ohikoagoa da mutil bat bakarrik bizitzera joatea (% 21) neska batek hautu hori bera egitea baino (% 12,5).

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria emantzipatua, etxe motaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera. Portzentajeak. 2001

	Pertsona bakarrekoa	Pertsona anitzekoa familia osatzen ez dutenak	Familia bakarrekoa, kanpoko pertsonarik gabe	Familia bakarrekoa, kanpoko beste pertsonekin	Bi familia edo gehiagokoa, kanpoko pertsonarik gabe	Bi familia edo gehiagokoa, kanpoko pertsonekin
Guztira	16,6	4,8	68,3	8,2	1,3	0,8
Gizonezkoak	21,7	5,6	61,5	9,0	1,3	0,9
Emakumezkoak	12,5	4,2	73,7	7,7	1,3	0,7
15-19	17,8	3,9	59,0	14,3	3,5	1,4
20-24	17,4	5,9	60,5	12,8	1,9	1,5
25-29	16,2	4,5	71,3	6,5	1,0	0,5

Iturria: 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, Eustat eta INE

Erlazionaturiko datu taulak:

- [1. taula](#) (pdf, 19 kb)
- [2. taula](#) (pdf, 21 kb)
- [3. taula](#) (pdf, 21 kb)
- [4. taula](#) (pdf, 21 kb)
- [5. taula](#) (pdf, 22 kb)
- [6. taula](#) (pdf, 21 kb)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)